

ENPRESEN EGOERA

Salmentak, kanpo
merkataritza, enplegua eta
soldatak

HILEKO TXOSTENA

> 2016ko iraila

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ogasun eta Finantza
Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de
Hacienda y Finanzas

AURKEZPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak estatistikako azterlanak prestatu ohi ditu Gipuzkoako enpresen salmentei, kanpo merkataritzari, enpleguari eta soldatei buruz, Gipuzkoako enpresen eta ekonomiaren bilakaerari buruzko informazio eguneratua eskuratze aldera.

Informazio hau oso tresna interesgarria da departamentuaren eta Foru Aldundiaren jarduketa bideratzeko, eta, interes orokorrekoa denez, Gipuzkoako gizartearen esku jartzen da argitalpen honen bidez.

Argitalpen honetako informazioa lortzeko, erabili dira **Gipuzkoan sozietate egoitza** duten **enpresa EZ finantzarioek** hilero aurkezten dituzten **aitorpenak**: Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta lanaren, jarduera ekonomikoen eta sarien etekinen atxikipenak eta konturako sarrerak.

Normalean, informazio hau hilero argitaratzen da; dena den, uztaila eta abuztuko datuen analisia batera egiten da; izan ere, uztaileko aitorpen-likidazioa aurkezteko epea, udara dela-eta, hilabete luzatzen da, irailaren 25eraino.

Eranskinaren hasieran dagoen oharrean aipatzen den bezala, metatutako epealdietako (hiruhilekoak, urtekoak...) bariazioak kalkulatzekoan populazio konstantearen irizpidea erabili ordez, batez besteko ponderatuaren irizpidea erabiltzen da.


EZAUGARRI NAGUSIAK

- 2016ko lehen bederatzi hilabeteetan Gipuzkoako enpresen salmentak %0,5 igo dira. Barruko salmentek portaera positiboa izan duten bitartean (+%1,5), esportazioak %1,3 jaitsi dira.
- Iraileko salmenten beherakadari (-%7,1), uztailiko (-%6,5) eta abuztuko (+%6,5) bilakaerak lotzen badizkiogu, azkenean urteko hirugarren hiruhileko honetan salmenta osoak %3,5 jaitsi direla ikusten da. Barruko salmentak, nahiz eta ez izan aurreko hilabeteetako bezalako portaera ona, oraindik ere balio positiboetan mantentzen dira (+%0,3 hirugarren hiruhilekoan). Aldiz, esportazioak %10,1 jaitsi dira epealdi horretan.
- Salmentetan ikusten den portaera hori, ez da errepikatzen enpleguan. Horrela, langile kopuruak hazten jarraitzen du, eta urteko lehen bederatzi hilabete hauetan igoera %2,9koa izan da. Enpresek ordaindutako soldatak ere igo egin dira: +%2,6.

1. taula - GIPUZKOA KO ENPRESEN ADIERAZLE NAGUSIAK (Urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Iraila	Δ% Uztaila-Iraila	Δ% Urtarril-Iraila
Salmenta osoak	-7,1	-3,5	0,5
Barruko salmentak	0,3	0,3	1,5
Esportazioak	-19,3	-10,1	-1,3
Inportazioak	-14,7	-12,5	-7,3
Enplegua	3,3	2,9	2,9
Soldatak	3,0	2,5	2,6

1. grafikoa - SALMENTAK (urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTAK

- Urteko lehen bederatzi hilabeteetan zerbitzu sektoreko salmentak igo egin dira, eta industrian eta eraikuntzan, berriz, jaitsi

2016ko lehen bederatzi hilabete hauetan industriako enpresen salmentak %0,6 jaitsi dira, aurreko urteko epealdi berdinarekin alderatuta. Urtean zehar gorabeherak izan dituzte sektore honetako salmentek: lehen hiruhilekoan %4,0 jaitsiera izan zuten, bigarrenean %9,0 handitu, eta hirugarrengo honetan berriro jaitsi egin dira (-%7,4).


Berdin gertatu zaie eraikuntza sektoreko enpresen salmentei: lehen hiruhilekoan %9,0 jaitsi ziren, bigarrenean %0,7 igo, eta hirugarrengoan berriro jaitsi (-%6,8). Dena den, azkenean eta urteko metatuan industriak baino jaitsiera handiagoa metatzen du (-%4,8).

Zerbitzu sektoreko enpresen salmentak %1,0 jaitsi ziren irailean, baina abuztuko (+%12,6) portaera onari esker, hirugarren hiruhilekoan %3,0 igo dira, eta ondorioz 2016ko lehen bederatzi hilabete hauetan %3,0ko igoera metatua dute.

2. taula - SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTA OSOAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Iraila	Δ% Uztaila-Iraila	Δ% Urtarril-Iraila
Salmenta osoak	-7,1	-3,5	0,5
▪ Industria	-10,4	-7,4	-0,6
▪ Eraikuntza	-10,9	-6,8	-4,8
▪ Zerbitzuak	-1,0	3,0	3,0

2 grafikoa – SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTA OSOAK
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK

- Gipuzkoako enpresen esportazioak %1,3 jaitsi dira 2016ko lehen bederatzir hilabeteetan


Lehen hiruhilekoan %4,6ko jaitsi ziren, bigarrenkoan %10,0 igo, eta hirugarrenean %10,1 jaitsi. Azkenean, urteko lehen bederatzir hilabete hauetan esportazioak %1,3 jaitsi dira. Salmenta horien noranzkoa begiraturik, Europar Batasunera saldutakoak portaera oso positiboa erakusten dute (+%6,6); Europar Batasunetik kanpora zuzendutakoak, aldiz, nabarmen jaitsi dira (-%12,6).

Inportazioei dagokionez, 2014ko erdi aldetik 2015eko iraila arte igoera nabarmenak izan zituen, baina, hortik aurrera hazkundea moteltzen hasi zen. Horrela, irailean %14,7 jaitsi dira, eta urteko metatua %7,3ko jaitsiera izan dute. Kasu honetan, erosketen jatorria begiraturik gero, biak jaitsi dira: EBtik egindako erosketak %6,6, eta zertxobait gehiago EBtik kanpo egindakoak (-%9,6).

3. taula – ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Iraila	Δ% Uztaila-Iraila	Δ% Urtarril-Iraila
Esportazioak	-19,3	-10,1	-1,3
▪ Europar Batasuna	-11,3	-5,6	6,6
▪ Munduko gainerako herrialdeak	-29,7	-16,2	-12,6
Inportazioak	-14,7	-12,5	-7,3
▪ Europar Batasuna	-10,6	-11,3	-6,6
▪ Munduko gainerako herrialdeak	-27,5	-16,1	-9,6

3. grafikoa - ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA

- Gipuzkoako enpresen langile kopurua %2,9 handitu da 2016ko lehen bederatzi hilabeteetan


Langile kopuruari dagokionez, ez da nabari salmentetan ikuste den portaera, eta hazkundeak jarraitzen du. 2016ko urtarril-iraileko bederatzi hilabeteetan %2,9 handitu da. Gainera, irailean izandako %3,3ko igoerekin, hogeita batgarren hilabetez jarraian igoerak erakusten ditu langile kopuruak.

Sektoreka, eta urteko metatua, industrian eta zerbitzuetan langile kopurua igo egin da: +%2,0 eta +%5,2, hurrenez hurren. Eta eraikuntzako enpresetako enplegua da beheraka egin duen bakarra (-%7,7).

4. taula – SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Iraila	Δ% Uztaila-Iraila	Δ% Urtarril-Iraila
Enplegu osoa	3,3	2,9	2,9
▪ Industria	2,5	2,1	2,0
▪ Eraikuntza	-7,3	-8,1	-7,7
▪ Zerbitzuak	5,4	5,2	5,2

4. grafikoa - SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA
(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)



SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

- Enpresek ordaindutako soldatak %2,6 igo dira 2016ko lehen bederatzi hilabeteetan, aurreko urteko epealdi berdinarekin alderatuta

2016ko lehen bederatzi hilabeteetan Gipuzkoako enpresek ordaindutako soldatak %2,6 igo dira, 2015. urteko epealdi berdinarekin alderatuta. Bilakaera sektoreka aztertuz gero, portaera desberdinak ikusten dira: industrian eta zerbitzuetan ordaindutako soldatak igo egin dira (+%2,1 eta +%5,4, hurrenez hurren); eta eraikuntzan, aldiz, jaitsi egin dira (-%9,5).


Epealdi honetan enpleguaren hazkundea (+%2,9) soldatena (+%2,6) baino handiagoa izan da, eta ondorioz langile bakoitzeko batez besteko ordainsaria jaitsi egin da (-%0,2). Sektoreka, industrian soldatak (+%2,1) langile kopurua (+%2,0) baino gehiago hazi dira, eta ondorioz, batez besteko soldata handitu egin da (+%0,2). Zerbitzuetan berdina gertatu da (+%5,2 langile kopurua eta +%5,4 soldatak), eta, beraz, batez besteko soldata %0,2 igo da. Eraikuntzan, bai enplegua eta bai soldatak jaitsi egin dira (azken horiek gehiago), eta batez besteko ordainsaria %2,0 jaitsi da.

5. taula – SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK (urte arteko bariazio tasak)

Adierazlea	Δ% Iraila	Δ% Uztaila-Iraila	Δ% Urtarril-Iraila
Soldata osoak	3,0	2,5	2,6
▪ Industria	2,7	2,0	2,1
▪ Eraikuntza	-8,1	-9,0	-9,5
▪ Zerbitzuak	5,1	5,0	5,4

5. grafikoa – SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

(urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)





➤ 2016ko iraila

ENPRESEN EGOERA

GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK, KANPO MERKATARITZA, ENPLEGUA ETA SOLDATAK

Estatistiken eranskina

Oharra.

Eranskin honetan hileroko bariazio tasak ematerakoan populazio konstantearen irizpidea erabili da. Hau da, bariazio tasa kalkulatu da bi urtez jarraian hilabete berean aitortzen duten enpresekin. Populazio konstantearen arabera bariazio tasa horiek sektoreen koiuntura erakusten dute, eta bariazio demografikoek ez diete eragin. Populazio konstantea definitzen den moduari esker, ez da beharrezkoa erregistratu gabeko datuak egoztea.

Aldiz, hiruhileko, urteko eta epealdi metatuei dagozkion bariazioak kalkulatzeko batez besteko ponderatuak erabili dira.

1 taula - SALMENTA OSOAK: BARRUKO SALMENTAK ETA ESPORTAZIOAK

Epealdia	Salmenta osoak	Barruko salmentak	Esportazioak
2006	7,1	6,6	8,4
2007	7,1	6,1	10,0
2008	0,0	-1,5	4,6
2009	-20,5	-20,2	-21,6
2010	2,1	-4,6	21,6
2011	0,5	-5,0	12,8
2012	-5,1	-8,0	0,4
2013	-3,6	-5,4	-0,5
2014	3,3	3,3	3,2
2015	4,9	3,0	8,2
2015 (1)	6,0	3,8	9,9
2016 (1)	0,5	1,5	-1,3
2014 I	3,3	3,3	3,3
II	1,2	2,5	-1,0
III	4,9	4,8	5,2
IV	3,8	2,8	5,4
2015 I	7,2	5,5	10,0
II	4,2	1,6	8,8
III	6,7	4,3	11,0
IV	2,3	1,1	4,2
2016 I	-2,1	-0,6	-4,6
II	6,7	4,8	10,0
III	-3,5	0,3	-10,1
2014 iraila	2,5	0,1	7,0
urria	1,5	4,1	-2,8
azaroa	13,2	3,9	29,5
abendua	-1,9	0,6	-5,6
2015 urtarrila	-0,6	-0,2	-1,5
otsaila	10,4	8,0	14,3
martxoa	11,3	8,6	16,0
apirila	0,3	-0,8	2,2
maiatza	6,0	0,5	16,4
ekaina	6,1	5,0	8,0
uztaila	4,5	3,4	6,4
abuztua	3,4	1,1	7,9
iraila	11,1	7,4	17,6
urria	-2,4	-4,1	0,5
azaroa	-3,0	3,0	-11,2
abendua	11,9	4,6	24,1
2016 urtarrila	1,8	1,0	3,3
otsaila	-3,6	1,1	-11,1
martxoa	-3,8	-3,5	-4,3
apirila	13,7	7,0	24,9
maiatza	8,2	4,6	14,2
ekaina	-0,7	3,0	-7,0
uztaila	-6,5	-3,9	-10,9
abuztua	6,5	6,4	6,7
iraila	-7,1	0,3	-19,3

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

ENPRESEN EGOERA

2. taula - PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO SALMENTAK

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	7,1	13,1	7,7	-1,6
2007	7,1	7,5	11,8	5,6
2008	0,0	1,8	10,5	-4,8
2009	-20,5	-25,1	-11,1	-14,8
2010	2,1	6,0	-21,8	2,1
2011	0,5	3,5	-21,6	0,3
2012	-5,1	-5,1	-25,3	-1,2
2013	-3,6	-4,1	-17,4	-0,4
2014	3,3	3,4	0,9	3,4
2015	4,9	5,4	-7,5	6,3
2015 (1)	6,0	6,8	-5,5	6,5
2016 (1)	0,5	-0,6	-4,8	3,0
2014 I	3,3	0,5	10,2	7,0
II	1,2	1,2	-3,2	1,9
III	4,9	5,3	0,9	5,0
IV	3,8	6,5	-1,8	0,5
2015 I	7,2	8,8	-5,7	6,6
II	4,2	4,5	-4,5	5,1
III	6,7	7,3	-6,3	8,0
IV	2,3	1,9	-12,4	5,9
2016 I	-2,1	-4,0	-9,0	2,0
II	6,7	9,0	0,7	4,0
III	-3,5	-7,4	-6,8	3,0
2014 iraila	2,5	2,0	-10,0	5,8
urria	1,5	-1,4	24,3	2,7
azaroa	13,2	19,2	1,6	5,3
abendua	-1,9	3,2	-22,0	-5,5
2015 urtarrila	-0,6	-2,3	-14,1	4,3
otsaila	10,4	15,3	4,8	3,4
martxoa	11,3	12,9	-7,7	11,6
apirila	0,3	0,9	2,0	-0,8
maiatza	6,0	9,3	-7,7	3,6
ekaina	6,1	3,6	-6,0	12,8
uztaila	4,5	3,2	8,3	6,1
abuztua	3,4	4,6	-22,9	6,9
iraila	11,1	13,3	-5,8	10,7
urria	-2,4	-0,3	-29,2	-0,4
azaroa	-3,0	-8,4	-7,9	8,3
abendua	11,9	14,5	0,6	9,9
2016 urtarrila	1,8	2,9	-27,8	4,5
otsaila	-3,6	-9,4	-11,4	7,7
martxoa	-3,8	-4,3	11,0	-4,9
apirila	13,7	19,0	7,2	6,2
maiatza	8,2	10,7	3,6	5,0
ekaina	-0,7	-1,2	-7,3	1,2
uztaila	-6,5	-9,7	-14,3	-0,1
abuztua	6,5	1,4	10,8	12,6
iraila	-7,1	-10,4	-10,9	-1,0

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

3. taula – ESPORTAZIO ETA INPORTAZIOAK INGURUNE GEOGRAFIKOEN ARABERA

Epealdia	Esportazioak			Inportazioak		
	Guztira	EB	BESTEAK	Guztira	EB	BESTEAK
2006	8,4	6,3	11,7	11,9	10,4	17,4
2007	10,0	13,3	5,3	12,3	10,7	18,1
2008	4,6	4,2	5,3	0,0	-1,6	5,3
2009	-21,6	-27,1	-13,2	-37,4	-35,8	-42,2
2010	21,6	12,7	32,7	28,4	32,1	16,0
2011	12,8	20,3	4,8	11,0	12,5	5,3
2012	0,4	3,2	-3,1	-8,7	-8,6	-9,2
2013	-0,5	-1,5	0,7	-1,0	-1,2	-0,5
2014	3,2	10,1	-5,4	1,2	0,5	3,7
2015	8,2	6,0	11,4	11,3	10,3	15,5
2015 (1)	9,9	9,1	11,1	14,6	12,2	24,7
2016 (1)	-1,3	6,6	-12,6	-7,3	-6,6	-9,6
2014 I	3,3	7,1	-1,7	-4,1	-2,9	-8,5
II	-1,0	4,7	-8,0	-2,9	-5,1	6,1
III	5,2	10,3	-1,6	4,8	4,2	7,0
IV	5,4	17,6	-8,5	6,8	5,9	10,3
2015 I	10,0	14,5	3,6	12,5	9,3	26,5
II	8,8	6,8	11,6	16,9	16,2	19,7
III	11,0	5,9	18,6	14,4	10,9	28,2
IV	4,2	-1,4	12,2	2,6	5,3	-8,8
2016 I	-4,6	-0,7	-10,8	-4,9	-3,6	-9,5
II	10,0	25,2	-10,8	-4,6	-5,1	-2,6
III	-10,1	-5,6	-16,2	-12,5	-11,3	-16,1
2014 iraila	7,0	8,8	4,5	6,5	2,0	24,2
urria	-2,8	11,4	-20,0	12,5	9,9	22,1
azaroa	29,5	36,4	19,1	3,3	1,0	13,9
abendua	-5,6	5,8	-15,7	4,0	6,7	-6,1
2015 urtarrila	-1,5	4,9	-10,4	8,7	4,1	29,1
otsaila	14,3	24,6	0,3	12,9	9,9	26,3
martxoa	16,0	13,2	20,2	15,6	13,4	24,5
apirila	2,2	-6,2	14,8	13,7	13,1	16,1
maiatza	16,4	18,3	13,8	17,0	17,7	14,5
ekaina	8,0	8,8	6,9	19,8	17,8	28,1
uztaila	6,4	4,8	8,7	10,8	6,9	29,0
abuztua	7,9	-0,6	20,6	23,0	15,1	55,4
iraila	17,6	11,2	27,3	13,1	12,6	14,7
urria	0,5	-5,1	9,8	-6,4	-4,0	-15,5
azaroa	-11,2	-12,1	-9,8	7,5	6,8	10,7
abendua	24,1	17,1	31,2	8,7	14,7	-19,8
2016 urtarrila	3,3	13,6	-13,3	-2,9	-3,4	-1,3
otsaila	-11,1	-11,5	-10,6	1,7	3,3	-4,4
martxoa	-4,3	-0,9	-9,3	-12,4	-10,1	-21,1
apirila	24,9	60,1	-17,9	2,8	3,1	1,6
maiatza	14,2	26,2	-3,5	-2,5	-4,7	5,5
ekaina	-7,0	-4,4	-10,8	-12,3	-12,3	-12,6
uztaila	-10,9	-8,8	-13,9	-16,0	-17,3	-11,6
abuztua	6,7	9,6	3,2	-3,2	-2,6	-4,7
iraila	-19,3	-11,3	-29,7	-14,7	-10,6	-27,5

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

4. taula- PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO ENPLEGUA

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	-0,2	-1,1	3,7	1,6
2007	1,8	0,9	5,3	3,7
2008	0,2	-1,1	0,2	4,2
2009	-6,1	-7,1	-1,1	-4,8
2010	-2,8	-3,0	-9,7	-0,6
2011	-0,7	-0,3	-11,6	0,5
2012	-3,1	-3,0	-11,2	-2,0
2013	-2,9	-3,3	-9,2	-1,0
2014	-0,7	-2,3	-4,1	2,9
2015	2,1	1,6	-5,6	3,5
2015 (1)	1,8	1,3	-5,6	3,2
2016 (1)	2,9	2,0	-7,7	5,2
2014 I	-0,9	-2,8	-2,8	3,0
II	-0,5	-2,2	-4,2	3,3
III	-0,5	-2,1	-3,4	2,9
IV	-0,9	-2,2	-5,9	2,2
2015 I	1,1	0,5	-4,9	2,6
II	2,3	2,0	-6,4	3,4
III	2,0	1,4	-5,6	3,7
IV	3,0	2,6	-5,5	4,4
2016 I	3,1	1,8	-6,6	6,1
II	2,5	1,9	-8,2	4,4
III	2,9	2,1	-8,1	5,2
2014 iraila	-0,9	-2,4	-4,4	2,4
urria	-1,0	-2,9	-4,1	2,8
azaroa	-0,7	-1,9	-5,6	2,1
abendua	-0,9	-1,8	-8,2	1,7
2015 urtarrila	0,6	-0,2	-4,3	2,3
otsaila	1,3	0,5	-4,2	3,1
martxoa	1,4	1,1	-6,3	2,4
apirila	1,7	1,8	-6,9	2,2
maiatza	2,3	1,9	-6,2	3,7
ekaina	2,8	3,4	1,1	4,0
uztaila	2,1	1,7	-5,6	3,5
abuztua	2,2	1,8	-5,9	3,8
iraila	1,7	0,7	-5,3	3,8
urria	2,7	2,8	-5,6	3,3
azaroa	3,8	3,4	-5,3	5,2
abendua	2,7	1,8	-5,6	4,8
2016 urtarrila	3,2	1,3	-5,5	6,9
otsaila	2,7	2,2	-6,8	4,3
martxoa	3,5	1,8	-7,6	7,1
apirila	3,2	1,9	-8,0	6,1
maiatza	2,4	1,3	-8,7	5,0
ekaina	2,1	2,5	-7,9	2,2
uztaila	2,5	2,2	-8,6	4,1
abuztua	2,9	1,7	-8,5	6,1
iraila	3,3	2,5	-7,3	5,4

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan

5. taula – PRODUKZIO SEKTOREEN ARABERAKO SOLDATAK

Epealdia	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	4,1	2,8	7,8	7,7
2007	5,9	5,2	10,0	6,9
2008	5,1	3,5	5,0	10,7
2009	-5,3	-6,8	1,0	-2,9
2010	-1,3	-0,8	-9,4	-0,2
2011	2,5	4,0	-11,5	1,8
2012	-2,4	-2,1	-12,7	-0,9
2013	-1,5	-1,2	-9,4	-0,7
2014	-0,1	-0,5	-4,2	1,6
2015	2,1	2,0	-3,3	3,1
2015 (1)	2,0	1,9	-3,8	3,1
2016 (1)	2,6	2,1	-9,5	5,4
2014 I	-1,2	-2,5	-3,4	2,1
II	-0,1	-0,3	-6,9	1,6
III	0,9	1,0	-3,0	1,1
IV	0,0	-0,5	-3,6	1,8
2015 I	2,0	2,3	-5,4	2,3
II	2,6	2,3	-1,2	3,8
III	1,5	1,2	-4,9	3,1
IV	2,4	2,3	-1,9	3,1
2016 I	3,3	2,5	-8,4	6,4
II	2,3	1,9	-10,9	4,9
III	2,5	2,0	-9,0	5,0
2014 iraila	-0,9	-1,8	-3,6	1,7
urria	-1,8	-2,7	5,6	-0,8
azaroa	-0,3	-1,3	-7,2	3,1
abendua	1,2	1,2	-7,1	2,5
2015 urtarrila	1,4	2,9	-13,2	-0,2
otsaila	2,2	1,6	4,5	3,5
martxoa	2,4	2,5	-6,4	3,4
apirila	1,1	0,4	-4,0	3,2
maiatza	3,3	3,1	-1,4	4,3
ekaina	3,5	3,4	1,1	4,0
uztaila	1,5	0,9	-1,5	3,4
abuztua	0,7	0,2	-9,0	3,1
iraila	2,3	2,6	-5,4	2,8
urria	3,2	3,4	-11,0	4,9
azaroa	3,1	2,7	-0,4	4,3
abendua	1,5	1,5	3,2	1,4
2016 urtarrila	3,7	2,5	-6,3	7,9
otsaila	2,9	3,1	-15,3	5,1
martxoa	3,2	2,1	-3,9	6,4
apirila	2,8	3,5	-4,4	2,1
maiatza	2,2	0,8	-13,7	7,4
ekaina	1,8	1,3	-13,3	5,2
uztaila	1,7	1,2	-12,3	4,7
abuztua	3,2	2,6	-5,2	5,5
iraila	3,0	2,7	-8,1	5,1

(1) Erreferentziako hilera arte metatutako datuak

Urtearteko bariazio tasak ehunekotan